

En Gipuzkoa, a 13 de julio de 2020

REUNIÓN DE LA JUNTA ELECTORAL DE LA FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE BALONMANO

Utilizando aplicaciones telemáticas, se reúne la Junta Electoral de la Federación Guipuzcoana de Balonmano con los siguientes asistentes:

Presidente: Xabat Beloki
Vocal: Borja Burguete
Secretaria: Virginia Rodriguez

Y con los siguientes asuntos en el orden del día:

LEHENA.- GALLEGO JAUNAK AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE HELEGITEARI EBAZPENA

AURREKARIAK.- Gallego jaunak, hauteskunde batzorde honek 2020-07-06an izandako bileran, bigarren puntuan hartutako erabakiaren aurka berraztertze helegitea aurkeztu du, bi kasu zehatz berraztertze eskatuz.

Aurreko helegitean erabilitako argudio berberak erabiliz, AC anderea eta BIE jaunaren lizentzia tramitatzeko dokumentu batzuk aurkezten ditu kasua berraztertze proba gisa. Nola nahi ere, proba gisa aurkeztutako dokumentuok, 2020-07-06an hartutako ebazpenean azaldutakoa berretsi baino ez dute egiten. Alegia, jaun-andere batzuei lizentzia tramitatzeko prozedura hasi egin zela, baina bukatu ez (email bidalketa bat AC anderearen kasuan eta sinatu gabeko tramitazio eskaera bat BIE jaunaren kasuan). Tramite horiek bukatu ez zirela argudiatzeko, norgehiagoken izendapenak erabiltzea eskatzen zaio hauteskunde batzorde honi.

Horrela bada, eztabaida interesgarria aurkezten du helegitea jarri duen Gallego jaunak. Izapidetze edo tramitazio prozedura egokia al du Federazioak? Federazioak nahikoa egin al du tramitazio horiek aurrera eramateko? Helegitean aipatutako AC eta BIE jaun-andereek benetan interesa izan al dute lizentzia tramitatzeko prozedura guztia aurrera ondo eramateko? Zergatik daude hainbeste lagun prozedura guztiak bukatu ez dituztenak? Helegitea jarri duen horren baieztapenak egia badira (lizentzia tramitatzeko prozedura gabe norgehiagokak zuzendu dituztela behin eta berriz), zergatik izendatu ditu epaileen batzordeak lizentziarik gabe denboraldi osoan zehar hainbeste jaun-andere jarraikortasunarekin? Eta era berean, epaileen batzordeko araudian ezarrita bezala lizentzia egokirik ez duten lagunek epaile gisa norgehiagokak zuzendu baldin badituzte, zergatik Federazioak berak ez du ezer egin diziiplina araudia erabiliz horrelako egoera irregularrak saihesteko? Galdera hauek ez ditu hauteskunde batzorde honek erantzun behar, ez baitira bere eskumenekoak. Hauteskunde erroldak egoki jaulkitako lizentzien islada izan behar du, hauteskunde araudiaren 21. artikulua arabera eta hauteskunde batzorde honek beraz ez du jaulki ez diren lizentziarik hauteskunde erroldan sartzeko eskumenik.

Laburbilduz, 2020-07-06an aurkeztutako ebazpenaren argudio berberak erabiliz, eta kasu honetan Gallego jaunak aurkeztutako probak ebazpen hau emateko oinarri gisa gehituz, helegite aurkezle horri gogoraziz AC eta BIE jaunak hautesle erroldan badaudela, jokalarien estamentuan zehazki, honakoa eman behar zaio:

EBAZPENA.- Gallego jaunak aurkeztutako helegitea EZESTE, aurretik azaldutako eta 2020-07-06an jakinarazitako argudioak kontuan izanda.

BIGARRENA.- HAUTESLE-ERROLDAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

Kontuan izanik pertsona fisiko bakoitza estamentu bakarrean agertu daitekeela, egungo araudiak zehazten duen bezala, eta hainbat norbanako estamentu batean baino gehiagotan azaltzen direla, Gipuzkoako Federazioari eskatzen zaio berariazko "depurazioa" egin dezan, egungo araudiari jarraiki, norbanako bakoitza estamentu bakarrean azaldu dadin bakarrik, hurrengoak kontuan izanik:

- 1) Epailen eta beste estamenturen batean agertzen direnak, epailen estamentuan bakarrik egongo dira.
- 2) Teknikarien eta jokalarien estamentuan azaltzen direnak, teknikarien estamentuan bakarrik egongo dira.

Hau guztia, inork berariaz estamentu zehatz batean egoteko hauturik ez duela egin kontuan izanik.

Era berean, Federazio berak antzeman dituen eta jakinarazi dizkigun akats puntual teknikoak zuzendu ondoren, ERROLDA BEHIN BETIKOTZAT ONARTUA GERATZEN DA.

SEGUNDO.-

Teniendo en cuenta que cada persona física solo puede aparecer en un estamento, tal como prevé la reglamentación vigente, y que algunos federados aparecen en más de un estamento, se solicita a la Federación Guipuzcoana que realice la oportuna "depuración", siguiendo la reglamentación vigente, para que cada persona sólo aparezca en un único estamento, teniendo en cuenta lo siguiente:

- 1) Los que aparezcan en el estamento de jueces y en algún otro, deberán estar sólo en el estamento de jueces.
- 2) Los que aparezcan en el estamento de técnicos y jugadores, deberán estar sólo en el estamento de técnicos.

Todo esto en base a que ningún federado ha cursado solicitud expresa de aparecer en un estamento en concreto.

Así mismo, y tras corregir los errores técnicos puntuales que nos han sido notificados, EL CENSO QUEDA APROBADO DEFINITIVAMENTE

HIRUGARRENA.- HAUTAGAITZAK BATZAR NAGUSIRAKO

Hautagaitzak aurkezteko epearen irekiera, hauteskunde egutegian azaldu bezala.

TERCERO.- CANDIDATURAS A LA ASAMBLEA GENERAL

Apertura del plazo de presentación de candidaturas a la Asamblea General, tal como se prevé en el calendario electoral

Ebazpen hauen aurka errekurtoa aurkez daiteke Hauteskunde Batzorde honetan eta/edo Kirol Justiziako Euskal Batzordean, indarreko arauak eta erregelamenduek ezarritakoaren arabera, bertan ezarritako epeetan.

Contra las presentes resoluciones cabe interponer recurso ante esta Junta Electoral y/o el Comité Vasco de Justicia Deportiva, según lo que establece la normativa y reglamentos en vigor, en los plazos fijados en los mismos.